



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Espediente zenbakia:

Erregelamendu arautzailea

Prozedura: erregelamendu arautzaile organikoa onartzea

Gaia:

Nork sinatzen du agiria: alkatea

BOZERAMAILE-BATZORDEAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEA

ATARIKOAK

Bozerramaileen batzordeak Udaletan funtzionatzen du, Kongresu eta Senatuaren antzera; ez da derrigorrezkoa eta zeregin nagusia da osoko bilkuretako gai-ordena egitean laguntzea eta elkarlanean aritzea; udal taldeetako bozerramaileek osatzen dute.

Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide juridikoaren Erregelamendua da marko juridiko egokia administrazioaren organo osagarri honen funtzionamendua arautzeko, betiere, indarrean dagoen estatuko araudia eta erkidegokoa errespetatuz.

Horrela bada, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki korporazioetako antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duena, hala nola, tokiko autonomiaren printzipioak eta udalen eskumenak, zeinak jasorik baitaude apirilaren 2ko 7/1985 legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 25.2 artikuluan, interesekotzat jotzen da bozerramaile-batzordea eztabaida-, kontsulta- eta lankidetz-organogisa alkateari laguntzeko ohiko bilkurak prestatzeko eta udal taldeen parte-hartzea errazteko erakundearen antolaketan. Aldi berean,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

alkatearen eta bozeramaileen arteko elkargunea da udal jardueran parte hartzeko.

Horretarako, erregelamendu ahalak eta toki korporazioetako autoantolakuntzaren gaitasunean, zeina aitortzen baitu apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 legeak, 4 eta 20.3 artikuluetan, eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuak, toki araubidearen arloko xedapenak onartzen dituenak, 24.b) artikuluan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeetako antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duenak 4 artikuluan, horiek guztiak kontuan izanda udal erregelamendu hau egiten da, udal honetako bozeramaile-batzordearen antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duena.

Horrek guztiak arrazoitzen du araua egokitzea arautze egokiaren printzipioetara, 39/2015 legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoetan Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak 129.1 artikuluan xedaturikora; horrela betetzen da administrazio publikoen eginbeharra, hau da, behar, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientziaren printzipioen arabera jardun beharra.

1 ARTIKULUA . Izaera juridikoa eta lege oinarria

Bozeramaile-batzordea udalaren aholku-organoa da bere politika, erakunde eta funtzionamendu arloko erabakiak hartzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Batzorde horrek ezagutuko ditu, halaber, udalak beste administrazio publikoekin dituen harremanen inguruko gaiak.

Horrez gain, lankidetzaren organoa da alkatearekin. Ohiko bilkurak prestatzen laguntzeko zeregina du, eta baita taldeen arteko edo taldeak eta alkatearen arteko harremanei buruzko gaiak ere.

Bozerramaile-batzordea eratzeko aukera jaso dago apirilaren 2ko 7/1985 legearen, (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak) 20.1 c) artikuluan, zeinak baimentzen dien udalei erregelamendu organikoen bidez organo osagarriak eratzzea.

Aurrekoan oinarrituz, ohikoa da udalek ere, kongresu eta senatuaren antzera, beren bozerramaile-batzordea eratzzea .

2. ARTIKULUA .Osaera

Alkatea da bozerramaile-batzordearen buru eta udal taldeetako bozerramaileek osatzen dute. Dena den, lehendakaritza hori eskuordetu dezake izaera iraunkorrarekin edo bilkura zehatz baterako alkateordearengan, betiere, apirilaren 2ko 7/1985 legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 21.3 artikuluan xedaturikoari jarraikiz eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 43 artikuluen babesean.

Bozerramaile-batzorde hori alkate-lehendakariaren ebazpen bidea eratzeko da, bere kideak izendatu bezain azkar. Bere osaeran izaten diren aldaketek tramite bera izango dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. ARTIKULUA Bozeramaile-batzordearen bilerak

Bozeramaile-batzordearen bilerak alkateak edo eskuordeturiko alkateordeak deituko ditu eta bera izango da buru; ohiko izaerarekin egingo dira-----maiztasunarekin, osoko bilkuraren aurretik, horiek azkartu eta hobeto antolatze aldera.

Horrez gain, ezohiko izaerarekin bilduko da alkateak edo alkateordeak deituta eta betiere,-----bozeramailearen , -----udal talderen, edo gutxienez-----zinegotzien eskariz.

4. ARTIKULUA. Bilkuren deialdia eta gauzatzea.

Deialdia-----egun lehenago gutxienez egingo da eta gai-zerrenda jasoko du. Bozeramaile-batzordeko deialdia ez egiteak ez du aldatuko ezertan ohiko osoko bilkuren deialdiaren balioa.

Udal osoko bilkurako Idazkaria izango da bozeramaile-batzordearen idazkaria eta zeregin hori eskuordetu dezake udaleko funtzionario batengan.

Bozeramaile-batzordekideei eskuratuko zaie landu beharreko gaien inguruko dokumentazioa.

5. ARTIKULUA Bozeramaile-batzordearen erabakiak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bozeramaile-batzordeko erabakiak boto haztatuaren bidez hartuko dira. Bozeramaile bakoitzari dagokion boto kopurua izango da berak ordeztu duen alderdi politikoak dituen zinegotzi kopuruan

Lehendakariaren botoak berdinketak apurtuko ditu.

Bozeramaile-batzordea aholku organo bat denez, hartutako erabakiek ez dute obligaziozko ebazpen izaerarik.

Bozeramaile-batzordeak hartutako erabakiek ez dute mugatuko, inolaz ere, udal taldeek duten ahalmena plenora doazen gaiak eztabaidatzeko.

6. ARTIKULUA bileren aktak

Bozeramaile-batzordeetako bileren akta egingo da , udaleko idazkariak edo honek eskuordetzen duen funtzionarioak sinatua, eta hartutako erabaki proposamenak jasoko ditu.

7. ARTIKULUA Zereginak

Honako zereginak dagozkie bozeramaile-batzordeari:

- Osoko bilkurako gai-zerrenda eztabaidatzea.
- Osoko bilkurei dagokien edozein gai proposatzea.
- Osoko bilkurari mozioak proposatzea, kide guztiek formalizatu badituzte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

— Alkateak emandako informazioa zinegotzi guztien artean banatzea, eta bide izatea zinegotziek beren eskaerak egiteko.

— Adieraztea zein pertsonak ordeztuko duten udala beste erakunde batzuen aurrean.

— Alkateak edo osoko bilkurak emandako beste batzuk, beti ere legezkoa bada.

[— ohi bilkurekin zerikusia duen beste edozein].

8. ARTIKULUA Erregelamendu organikoan txertzea

[kasua bada]

Erregelamendu hau, korporazioaren funtzionamenduari buruzko arau orokorra denez, udal erregelamendu organikoaren zati da eta udalak onartu zuen.....egunean, eta beraz, bertan barneratutzat jotzen da.

AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA

Erregelamendu hau indarrean jarriko da Lurraldeko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunera, horrela jasotzen baitu 65.2 artikulua apirilaren 2ko 7/85 legearen 70.2 artikuluekin bat; eta indarrean jarraituko du aldatu arte edo esanbidezko indargabetze arte.

ELEKTRONIKOKI SINATURIKO AGIRIA